

**ABESTI-BILDUMA
TRADIZIONALAK
ARAKATZEN**

HAUR HEZKUNTZA
HIZKUNTZA ETA MUSIKA

R 300. 2011-2012
Iñaki Otaegi Zalakain

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Justifikazioa. Zergatik/Zertarako/Norentzat/Lan mota/Materiala/Euskarria.....	5
Abestiak eta estekak... ..	11
Bibliografia eta sare-baliabideak	14

SARRERA

“Askotan ez dakigu nork eginak diren. Ez dakigu letra zehatz-mehatz nola den, edo, jakin arren, zer esaten ari garen ez dakigula kantatzen ditugu.”

(EGAÑA, Andoni in ANSORENA, J.I.: *Euskal Kantak*, Erein, Donostia, 2005)

Andoni Egañak aipatutako argitalpenean islatzen dituen hitz horien antzekoak izan ditut aspaldidanik buruan, eta, nire ustez, primeran laburtzen dute lantxo hau eragin duten ideietako bat. Niri behintzat, maiz gertatu izan zait ingurukoak –edo ni neu– galdezka ibiltzea *betiko* abesti horietako baten hitzak ulertzen ez ditugulako.

Beste askotan, bertsio ezberdinen aurrean ez dakigu nora jo jatorrizkoarekin alderatzeko, eta horixe da, hain zuzen ere, beste ideia nagusietako bat: abesti tradizional edo betiko horiek nork egin dituen aurkitzea, eta noiz.

Horretaz gain, honako hau ere gertatzen da: hitz solteen esanahia ezagutzea baina, orokorrean hartuta, ez ulertzea. Egia da, era berean, zenbait abestiren funtsa errima hutsa dela; hitzekin jolastea dutela helburu nagusi, alegia. Are gehiago “haurrentzako” abestien kasuan... Horrexegatik, hain zuzen, aztertu ditut abesti-bilduma orokorragoak, umeei zuzendutakoak askotan sinpleegiak eta zentzugabeegiak iruditzen baitzaizkit.

Arestian aipatutako liburuaren egileak, Jose Ignazio Ansorenak, abestiak herri baten bizieraren eta sentieraren ispilurik onena direla dio. Edo bitzta (batzuentzat behintzat) nolakoa zen, esango nuke nik. Garbi dago gure inguruan bizimodua nolakoa zen ulertzen lagundu dezaketela abestiek.

Nire lantxo honen **asmo nagusietako bat aukeraketa bat egitea** izan da, eskolan abesti bila hasten garenean eskola-metodoetako lehen sinplekeria ez hartzeko (“eskolako-gaia”-ren inguruko hitzen bat aipatzen duen aitzakiarekin) eta kantutegiak behin eta berriro goitik behera aztertu behar ez izateko. Aukeraketa hau, zer esanik ez, pertsonala da; hau da, nire gustuen araberakoa. Hala ere, zenbait irizpide antzeman daitezke. Maitasun-abesti gehienak (asko) alde batera utzi ditut, eta euskara ikasten ari diren Haur Hezkuntzako umeentzat egokiak iruditu zaizkidan kantak aukeratu ditut, nahiz eta haientzat bereziki sortuak ez izan. Abesti *politikoegiak* ere alde batera utzi ditut. Azken kutsu hori nabarmena da *Boga, boga* eta *Herria oihuka* kantutegietan, baina ez da harritzekoa, zer garaitan sortu ziren kontuan izanik. Bestalde, ez dut uste umeek ikasten dituzten abesti guztiek ‘haur kantak’ izan behar dutenik. Helduak kantatzen hasten direnean, abesten dituztenak umeentzat ere ezagunak izatea interesgarria iruditzen baitzait.

JUSTIFIKAZIOA –Zergatik–

Izan banituen aspaldiko beste hiru ideia IRALEn R 300 ikastaroaren proiektuan lantzeko. Erabakitzeko ordua iritsi zenean, berriz, haietako bat teorikoegia iruditu zitzaidan azken momentuan; bigarrena, zabalegia, eta hirugarrena, sinpleegia.

Proiektuen erabilgarritasunean eta praktikotasunean hainbesteko indarra jartzen zenez, bururatu zitzaidan **betiko abestien bilaketa eta aukeraketa bat egitea**, eskolan hainbatetan sumatutako **behar bati erantzuteko**. “Bat” diot, badakidalako aurretik ere egin izan direla euskal kanten arloan; sakonagoak, zabalagoak eta hobeak, seguru. Baina nik neurea egin nahi nuen.

Zergatik?

Aspertuta nagoelako umeei (helburu ustez didaktikoekin) behin eta berriro ikasarazten zaizkien sasiabesti hutsekin. Hitz baten aipamen huts bat edo errima behartu bat duten funtsik gabeko abestiak irakasten zaizkie, esanahiari erreparatu gabe, askotan “ikasmetodoan” datorrelako soilik.

Lehenik, abestiaren esanahiaz eta nondik norakoaz jabetu beharko dugu, eta, ondoren, esanahi hori ikasleei azaldu. Horrek ez du esan nahi, noski, abestiak hitzez hitz itzuli behar dizkiegunik, baina marrazkiak eta keinuak erabiliz kantu asko argitu daitezke.

Ikasten dituzten abestiak izan daitezela ezagunak, dibertigarriak batzuetan, dantzagarriak bestetan, sinpleak agian, baina ahal dela, onak! Duela gutxi irakurri nuen bezala: “Kantak ez dira modaz pasatzen, onak badira”. Kantak eta kantak ez direnak, noski.

Lehen, abesti bila hasten nintzenean, ez nekien nora jo. Orain, bai.

HELBURUA –Zertarako–

- Kulturaren transmisiorako.
- Euskara ikasteko, hobetzeko, aberasteko.
- Disfrutatzen.
- Kontakizunen berri izateko eta emateko.
- Emozioak bizitzeko, ateratzeko; abestiek sortarazten dituzten sentimenduak lantzeko.
- Musikaz gozatzeko.
- Ikasten dena partekatzen.

Iñaki Lasak *Kantagintza* bere lan osatuan honela dio: “Bertso-doinuak eta bertsolaritza ezagutu eta lantzeko, gure kondaira bertsoz, abestiz ezagutzeko, euskara landu eta aberasteko, gure abestiak ikasi, besterik gabe; abestien bidez ikasi eta jolasteko, urtarok eta bestelako jaiak ospatzeko... Gozatu eta ongi pasatu lagunekin abesten!”.

Zertarako ikasi abestiak? Abestiak, gehienetan, partekatzen ikasten direnez, bereziki garrantzitsua iruditu izan zait beti “emanalditxoak” egitea umeen motibazioa pizteko. Emanaldi horiek ondoko geletara joanda burutzen dira, eta emaitza ezin hobea izaten da. Gurasoak ere harrিতuta geratzen dira umeek zenbat ikasten duten ikusita. Are gehiago, abestiek diotena, orokorrean bada ere, azaltzeko gai direla ikusita.

Aipatutako Iñaki Lasaren lanean honela dator: “Antzina-antzinatik abestu izan zaie hurrei, txiki-txikitatik hasita. Motrizitatea, adimena, oroimena, zenbaki-kontaketa, mintzamina, ahoskatzea, giza baloreak, denbora-espazioa, kausa-ondorioa... landu zezaketen gure aitona-amonek kantuen bidez”.

Kantek kulturaren transmisioan duten balioa ukazina da.

NORENTZAT –NORI ZUZENDUTA–

- Haur Hezkuntzako umeentzat; euskara ikasten ari direnentzat, bereziki.
- Maisu-maistrentzat, haiek baitira gehien erabil dezaketenak.
- Gurasoentzat edo beste edonorentzat.

ZER –LAN MOTA–

Ez da kantutegi osatu bat. Ez da kantagintzaren inguruko tesi bat. Ez da ikerketa-lan sakon bat. Ez da haur-kanten bilduma bat.

Aukeraketa pertsonala da. Eskura izandako materialen artean egindako hautaketa da, arestian aipatutako irizpideen arabera. Abesti tradizionalen artean, sinpleak, zabalduak, dibertigarriak hartu nahi izan ditut, baina ez umeentzat bereziki sortuak izan direnak beti. Hala ere, horiek eta askoz gehiago aurkitu ahal izango ditu nahi duenak iradokitzen ditudan esteka elektroniko zein liburu eta kantutegietan.

Esanahia, jatorria, egilea argitu nahi izan dut; abestiak hobeto ulertzeko iruzkinak ere bilatu ditut. Arlo horretan, informaziorik osatuena Jose Ignazio Ansorenaren *Euskal kantak* liburu apartan aurkitzen dela uste dut. Zenbait pasadizo interesgarri azaltzen dira; are gehiago, egilea eta abestia idatzitako garaiaren inguruko informazioa, ezagunak badira, eta pertsonaien inguruko datuak, errealak badira.

Azkenean, proiektuak bere garapen propioa izan du, eta hasieran uste nuena ustela iruditu zait bukaeran. Aukeratutako abestien inguruko informazioa bilatzen ari nintzela, ikusi dut Ansorenaren liburuan, Iñaki Lasaren lanean eta batez ere Euskomedia, *Musikazblai* eta beste sare-baliabide elektroniko batzuetan, nik egin nahi nuena baino askoz informazio gehiago eta osoagoa zegoela.

Aukeraketa egina zegoenez, abesti bakoitza non aurkitu ziurtatu dut, eta horixe jaso dut abestien zerrendan.

ERABILITAKO MATERIALA -NOLA ARITU NAIZEN-

Kontu kantari aztertu nuen hasieran. Gero iturrietara jo nuen: bilduma tradizional ezagunenak (*Boga, boga* eta *Herria oihuka*). *Kantagintza* lan sakonarekin harritu nintzen. *Euskal kantak* liburuak informazio ugari eskaini zidan. Azkenik, sare-baliabideak...

Hori izango da, seguruenik, proiektutxo honen zati nagusia: egindako bidea.

Denbora asko eman nuen (gehiegi agian) kantutegi ezagunenak arakatzeko. Egunak eman nituen lehenik *Kontu kantarirekin*, gero *Boga, boga* eta *Herria oihuka* bilduma klasiko eta ezagunekin. Abestien hitzak banan-banan begiratu ondoren, kantutegi bakoitzeko zerrenda bat egin nuen. Gero, hirurak batu eta bigarren garbiketa bat egin nuen. Hala ere, desegokia den baten bat geratuko zen.

Iñaki Lasak IRALEn 2005ean egindako *Kantagintza* lan ederra behin baino gehiagotan begiratu dut; eta badago bertan ekarpen oso interesgarria, beste batzuen artean, bertsoen neurriez eta garrantziaz. Honelaxe dio berak: "Diotenez, gure abesti zaharren doinurik gehienak bertso-doinuak dira. Bertso-doinuak ezagutzeko, bertso motak ezagutzea beharrezkoa omen da haurra koskortzen doan heinean, nahiz eta oraindik ibiltzen ez jakin, altzoan hartu eta abesti hauek (*Arre, arre, mandako; Txalo pin txalo...*) abestuko genizkioke, bere eskutxoak erabiliz txaloak edo antzeko mugimenduak eginez".

Resurreccion Maria de Azkueren *Cancionero Popular Vasco* erreferentziazkoa ere arakatu nuen bertso elektronikoan.

Ansorenaren *Euskal Kantak* liburuko iruzkinak oso aberasgarriak iruditu zaizkit. Lan ederra da, kontsulta-liburu funtsezkoa. Era askotako iturrietan sakabanatutako kantak bildu, antolatu, txukundu (ortografia, adibidez) eta, azalpen lagungarriak emanez, liburu eder batean aurkezten ditu.

Sare-baliabideei dagokienez, *Euskomedia* hitzak jatorrizko bertsoan azaltzen dira askotan. Partitura ikusi eta musika entzuteko parada ematen du. Bost mila partituraz osatutako kantutegia da, eta kantu bakoitzaren deskribapen zabal bat (izenburua, jasotze-lekua eta data, letra, eta abar), partitura eta musika —MIDI formatuan— jasotzen ditu.

The screenshot shows the Euskomedia website interface. At the top, there are navigation links for 'FRANÇAIS', 'ENGLISH', and 'ESPAÑOL'. The main header includes the 'eusko media fundazioa' logo and the title 'Euskomedia. Kultura Topagunea'. A search bar is present with a 'bilatu' button. Below the header, the page title is 'BEHIN BATEAN LOIOLAN'. On the left, there is a 'Loturak' section with a 'partitura ikusi' button. The main content area provides details for the song: 'Berezko izenburua: BEHIN BATEAN LOIOLAN', 'Kantutegia: EUSKAL KANTAK', 'Testu normalizatua: BEHIN BATEAN LOIOLAN', 'Literatur incipit-a: BEHIN BATEAN LOIOLAN', 'Argitalpenaren urtea: 2000', 'Argitaletxea: EREIN', 'Argitalpen tokia: DONOSTIA', and 'Bestelako argitalpenak 1. 1993'. A 'Berezko testua:' section contains the lyrics. On the right, there are sections for 'Fondoak' (listing 'Añamendi', 'Liburu eta aldizkariak', 'Euskonews aldizkaria', 'Agiri fondoak', 'Euskal Kultura 1900-1975') and 'Kantutegia' (listing 'Multimedia', 'Jaien egutegia', 'Euskal Bibliografia', 'Monografikoak'). Below that, a 'Monografikoak' section features a portrait of 'Manuel de Irujo'.

Abestia entzuteko, aukera hobea da *Musikazblai* web-orria; itzulpenak ere aurkitzen dira. Kontuz ibili beharra dago, hala ere, itzulpenekin, nahiko askeak izaten baitira. Gauza bera gertatzen da zenbait moldaketa eta gaurkotze-lanekin.

The screenshot shows the Musikazblai website interface. The browser address bar displays 'eu.musikazblai.com/herrikoiak/markesaren-alaba/'. The page header includes the 'musikazblai.com' logo and navigation links for 'Base de datos', 'Foro', 'Noticias', 'Chat', 'Agenda', and 'Conócenos'. The main content area features a large orange banner for 'Markesaren alaba (Herrikoiak)'. Below the banner, there is a section for 'Letras' (Lyrics) with a voting system and the lyrics of the song. On the right, there are promotional banners for 'Curso de Deejay' (Deejay Course) and 'Participa!' (Participate!).

Baina, esan bezala, hasierako ideia —lausoegia, seguruenik— aldatu behar izan dut azken irakurketak egiten joan naizen heinean. Berriro esango dut: aukeraketa egina zegoenez, bakoitza non aurkitu ziurtatu dut, eta horixe islatu dut abestien zerrendan.

EUSKARRIAK

Euskarri digitala izateari deritzot onena, horrela zuzenean jo ahal izango baita iradokitako esteketara, eta informazio osoa eta jatorrizkoa aurkitu.

ABESTIAK BEREN ESTEKEKIN

OHARRA: bertsoak ez dira beti jatorrizkoak.

1. Aitorren hizkuntz zaharra http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/aitorren-hizkuntza-zaharra/
2. Ala kinkirri http://www.euskomedia.org/cancionero/5014
3. Aldapeko http://www.euskomedia.org/cancionero/3546
4. Ama begira zazu http://www.euskomedia.org/cancionero/4103
5. Ameriketara joan nintzan http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/ameriketara-joan-nintzan/
6. Andre Madalen http://www.euskomedia.org/cancionero/3469
7. Anttoni eta Antton http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/antoni-eta-anton/
8. Aran txan txan http://www.goeat.com/listen/fd63529/arantxan-txan-txan-takolo-pirritx-eta-porrotx
9. Astoa ikusi nuen www.kantuan.net
10. Baga, biga, higa http://ahobetekanta.arteola.com/kanta.php?id=141&id_hitzak=0
11. Bagera http://www.euskomedia.org/cancionero/1880
12. Basatxoritxu http://www.euskomedia.org/cancionero/3519
13. Baserritarrak http://www.euskomedia.org/cancionero/5021
14. Bautista Basterretxe http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/bautista-bazterretxe/
15. Begiak parrez parre www.kantuan.net
16. Behin batian Loiolan http://www.euskomedia.org/cancionero/5047
17. Behin joan nintzan azokara http://www.euskomedia.org/cancionero/719
18. Boga boga http://www.euskomedia.org/cancionero/4049
19. Bolon bat eta bolon bi http://www.euskomedia.org/cancionero/1807

20. Bonbolontena http://www.euskomedia.org/cancionero/1809
21. Donostiako hiru damatxo http://www.euskomedia.org/cancionero/4900
22. Euskal.Herrian euskaraz http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/euskal-herrian-euskaraz/
23. Egun da Santi Mamiña http://eu.musikazblai.com/mikel-laboa/egun-da-santimamina/
24. Elurra teilatuan http://eu.musikazblai.com/gabon-kantak/elurra-teilatuan/
25. Ez goaz lanera http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/ez-goaz-lanera/
26. Geuria da http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/geuria-da/
27. Goiko mendian http://www.euskomedia.org/cancionero/4926
28. Gorbeia larran http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/gorbeia-larran/
29. Guk euskaraz http://eu.musikazblai.com/urko/guk-euskaraz/
30. Gure Violeta maitea http://eu.musikazblai.com/oskorri/violetaren-martxa/
31. Haika mutil http://eu.musikazblai.com/mikel-laboa/haika-mutil/
32. Haurrak ikas azue http://www.euskomedia.org/cancionero/4024/
33. Ikusi mendizaleak http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/ikusi-mendizaleak/
34. Ikusi nuanean http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/ikusi-nuanian/
35. Ikusten duzu goizean http://www.euskomedia.org/cancionero/5044
36. Iturengo arotza http://www.euskomedia.org/cancionero/5006
37. Itsasontzi baten http://eu.musikazblai.com/kaxiano/itsasontzi-baten/
38. Ixil-ixilik dago http://www.euskomedia.org/cancionero/4975/
39. Jeiki-jeiki http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/jeiki-jeiki/
40. Kapitain pilotu http://eu.musikazblai.com/txirri-mirri-eta-txiribiton/kapitain-pilotu/
41. Kattalin http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/kattalin/

42. Kontrapas http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/kontrapas/
43. Maitiak galde egin zautan http://eu.musikazblai.com/imanol/maitiak-galde-egin-zautan/
44. Mando baten gainean http://www.euskomedia.org/cancionero/5051/
45. Maritxu nora zoaz http://www.euskomedia.org/cancionero/4946
46. Markosen txerrixe http://www.goeat.com/listen/e052abc/markoxen-txarrixe-oskorri
47. Oi Pello, Pello http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/oi-pello-pello/
48. San Simón eta SanJuda http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/san-simon/
49. Santa Agedakoak http://www.euskomedia.org/cancionero/4968
50. Txantxibiri http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/txantxibiri/
51. Txoria txori http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/txoria-txori/
52. Xoxuak http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/xoxoa/

BIBLIOGRAFIA

- ANSORENA, Jose Ignazio: *Euskal Kantak*, 3. argitalpena, Erein, Donostia, 2005.
- DE AZKUE, Ramón Maria: *Cancionero Popular Vasco*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1918.
- IZENGABEA: *Kontu kantari*, IRALE, 2005.
- LASA, Iñaki: *Kantagintza*, IRALE, Gasteiz, 2005.
- SALLEKO EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA: *Herria Oihuka*, Bilbao, 1977.
- URKIZU, Boni; UGALDE, Iñaki eta FERNANDORENA, Hiazinto: *Boga Boga*, 3. argitaraldia, Elkar, Donostia, 2005.

SARE BALIABIDEAK

- Euskal kantutegia: <http://www.euskomedia.org/cancionero>
- <http://eu.musikazblai.com/herrikoiak/>
- <http://ahobetekanta.arteola.com>
- www.goeat.com
- www.kantuan.net

